



(urtarrila - enero)

Jaungoikoaren Hitza berraurkitu. Erne egonez.



Elizaren eta fededun bakotxaren bizitza Idazteunaren irakurketan birsortzea da Kontzilioaren asmorik nagusienetakoa.

Funtsezko hiru puntu dagoz kontzilioko eztabaidetan: Hitzaren interpretazioa, "pastoral bibliko" barria behar izatea eta azterketa biblikoak beste kristinau erlijino batzuekin alkarlanean.

Idazteunak kristinau bizitza arruntean dauan nagusitasuna Kontzilioaren barritasun handia da. Ezin da ez bakarkako federik ezta eliz bizitzarik izan, "Hitzaren entzule" bihurtzen ez bagara.

irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Zeintzuk dira, zure ustez, fitxa honetako bi esaldi esanguratsu edo garrantzitsuenak?



2. Kristinauek Jaungoikoaren Hitza estimatzen eta arretaz jasoten dabela esango zeunke?



3. Zer deritxazu esaldi honi: "Jaungoikoaren Berbea ondo entzuteko, esku batean Biblia behar dogu eta bestean egunkaria"?



4. Zer irudituko litxakizu zure alkartean:

a) anboiaren (Hitza hots egiteko lekuaren) ondoan argi txiki bat ipiniko balitz, sagraioaren ondoan lez;



b) Biblia ipiniko balitz elizaren sarreran, egun horretako irakurgaia agerian dagoala, sartzerakoan irakurri ahal izateko?





Dei Verbum (DV) Jainkoaren errebelazinoari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1965.eko azaroaren 18a

1. Kontzilio honek Jainkoaren errebelazioaz eta honen transmisioaz doktrina jatorra proposatu nahi du, mundu osoak, salbamen-iragarpenaren bidez, entzunez sinets dezan, sinetsiz itxaron, eta itxaronez maitatu.

2. Errebelazio honetan, **Jainko ikusezina**, bere maitasun handiak eraginda, **adiskideei bezala mintzo zaie gizakiei** eta beraiekin tratatzen du, haiei bere elkartasunera dei egiteko eta haiek bertan hartzeko. Errebelazio-asmu hau, beren artean barne-lotura duten egitez eta hitzez gauzatzen da; honela, Jainkoak salbamen-historian egiten dituen ekintzek, hitzek adierazten dituzten doktrina eta errealtateak azaltzen eta berresten dituzte; hitzek, berriz, ekintzak aldarrikatzen dituzte eta haietan gordetzen den misterioa argitzen. **Errebelazio honek adierazten duen Jainkoaren eta gizakiaren salbamenaren egia sakona**, berriz, **Kristorengan jartzen zaigu agerian, era berean errebelazio ororen bitarteko eta osotasun den Kristorengan.**

12. Jainkoa gizakien bidez eta giza erara mintzo da Eskritura Santuan; horregatik, Eskritura Santuaren interpreteak, Hark jakinarazi nahi izan digun ezagutu ahal izateko, **arretaz aztertu behar ditu idazle santuek egiaz adierazi nahi zutena eta haien hitzez Jainkoak agertu nahi zuena.**

Idazle santuen asmoa jakiteko, besteak beste, genero literarioak hartu behar dira kontuan. Izan ere, egia era ezberdinetan proposatzen eta adierazten da mota bateko eta esteko testuetan: historikoetan dela, profetikoetan dela, poetikoetan dela, edo bestelako hitz egiteko moldeetan dela. Horregatik, beharrezko da interpreteak aztertzea idazle santuak testuinguru jakin batean, bere garai eta kulturaren arabera eta aro hartako genero literarioen bidez, adierazi nahi izan zuenaren eta adierazi zuenaren esanahia. Idazle santuak bere idatzian adierazi nahi izan zuena zuzen ulertzeko, **oso kontuan izan behar dira bai idazle santuaren garaietan indarrean zeuden pentsatzeko, esateko eta kontatzeko moduak,...**

errebelazinoa

Ezagutzen ez zan zerbait aurkitu edo adierazo. Hemen, "nork bere burua eza-gutzera emon" lez ulertzen da.

Jaungoikoari eta giza salbamenari buruzko egia adieraztoen daben berbak eta ekintzak dira, Berak adierazota.

bitartekoa eta osotasuna

Jesusengan, Kristogan, dago Jaungoikoaren komunikazioaren funtsezkoa, eta bere gainerako adierazpenak ulertzeko giltza.

Jesus da Jaungoikoaren komunikazio erabatekoa, ezeztazina eta bikaina.

interpretea

Idazteuna ondo ulertu behar dala adierazo gura da, ez bere materialtasunean bakarrik, idazleak esan gura izan ebaren eta erabili ahal izan ebazan kultura molde hareen arabera baino.

genero literarioak

Transmititu beharreko edukinaren arabera, idazleari aurretik eskaintzen jakozan idazteko molde desbardinak dira.

Hona hemen batzuk: narratiba, olerkia, jakituria, profetikoa, gutunak, historia, ebanjelioa, apokalipsia.

Genero literarioaz jaubetzea lagungarri da testua hobeto ulertzeko.



1965.eko urriaren 4an, Paulo VI.a hogeigarren urteurrena beteten eban NBera joan zan. Munduko bost zatiak ordezkaten ebezan bost kardinal joiazan beragaz. Ehun eta hamabost estaduko ordezkarien aurrean hitz egin eban. Txirotasuna eta bakea izan ziran bere berbaldiaren puntu nagusiak. Argazkian, Paulo VI.aren agurra, NBera egin eban bisitan.



"Peace I leave with you,
my peace I give to you."

(Jo. 14,27)

Paulus P.P. VI.

New York, October 4th, 1965.


Dei Verbum (DV) *Jainkoaren errebelazinoari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1965.eko azaroaren 18a*

25. Era berean, Sinodo santuak biziki gomendatzen die fededun guztiei... sarri irakur dezatela Eskritura Santua, "Kristo Jesus ezagutzearen dohain paregabea" erdiets dezaten, **"Eskritura ez ezagutzea Kristo bera ez ezagutzea baita"**. Jo bezate, bada, gogotsu testura bertara, bai Jainkoaren hitzez hain betea dagoen liturgia santuan, bai deboziazko irakurketaren bidez, bai horretarako egoki diren egituren bidez edota bestelako bitartekoen bidez, gaur egun nonahi ari baitira zabaltzen zorionez honelako lagungarriak eliz artzainen onarpenez eta zaintzapean. Gogora bezate, hala ere, Eskritura Santuaren irakurketak otoitza izan behar duela lagun, Jainkoaren eta gizakiaren arteko elkarrizketa gauzatu dadin; izan ere, "otoitz egitean Jainkoari hitz egiten diogu, eta Jainkoaren hitzak irakurtzean Berari entzuten diogu".

deboziazko irakurketa

Ohiko erea, Kontziliotik aurrera Eliza osoan zabaldu izan dan "lectio" deituta da. Bere Hitzaren bitartez hitz egiten deuskun Jaungoikoagaz alkarrizketan jarduteko erea da. Bost urrats ditu: irakurketa, hausnarketa, otoitza, begiespena eta konpromisoa.

Bakarka edo taldean egin daiteke.

Hirugarren saiotik aurrera, emakumeek parte hartu eben Kontzilioko entzule lez.

*Hasieran, hamabost izan ziran, zortzi monja eta zazpi laiko. Argazkian, horreetako bat, **Pilar Bellosillo** orduan Emakumezkoen Erakunde Katolikoaren Munduko Batasuneko presidentea zana.*


Gaudium et Spes (GS) *Eliza gaurko munduan konstituzino pastoralara. 1965.eko abenduaren 7a*

4. Egiteko hau betetzeko, Elizari dagokio aldien ezaugarriak une guztietan sakonki aztertu eta Ebanjelioaren argitan interpretatzea, gizaldi bakoitzari egokiturik, oraingo eta geroko bizitzaren esanahiaz eta haien arteko erlazioaz gizakiek dituzten betiko galderari erantzun diezaien. Beharrezko da, beraz, bizi garen mundu hau, beronen gogo eta gurariak, eta maiz dramatikoak den beronen izaera ezagutu eta ulertzea.

11. Jainkoaren Herria, fedeak eraginik, haren bidez lurbira osoa betetzen duen Jaunaren Espirituak gidatzen duela sinesten baitu, **bere garaiko guztiekin batera bizi dituen gertaera, eskaera eta gurarietan, Jainkoaren presentziaren nahiz xedearen egiazko seinaleak zein diren bereizten saiatzen da.** Izan ere, fedeak guztia argitzen du argi berriaz eta gizakiaren bokazio osoari buruz Jainkoak duen asmoa agertzen du, eta, horregatik, bete-betean gizatasunezkoak diren konponbideetarantz zuzentzen du gooa.

aldien ezaugarriak

Adiera bi daukaz. Lehenengoa, giza-diaren aldi edo une bat markatzen daberen seinaleena (ezaugarriena) da. Adiera "soziologikoa" da.

Bigarren adiera, historian, gaurko egunean, Jaungoikoaren presentziaren eta egitasmoaren doguzan seinaleei jagoke (Mt 16, 4).

Ez dira adiera baliokideak, garai bakoitzeko ezaugarri guztiak ez diralako Erreinuaren seinaleak. Ezinbestekoa da, beraz, bereizketa.

"Seinale" historikoetan be aditzera emon daiteke Jaungoikoaren presentzia edo egitasmoa. Nolabait esanda, errebelazino be badira.



OTOITZ EGIN

Abestia: Entzuten gaude zu Jauna... Jaunaren hitza...

Tu palabra me da vida... Dichoso el que camina por la vida...

Hitza: Isaias. 55, 6-13 eta Markos 3. 31-35 edo Lukas 4, 16 hur.

Danok batera esan daikegun salmoagaz erantzungo deusagu "berba" honi.

84 salmoa.

"Jaunak esana entzungo dot".

- Jaunak esana entzungo dot,
gogaituta nago gizakien hitzez,
hitz harro eta bortitzez,
hitz guzurti, huts eta azalekoez.

+ Jaunak esana entzungo dot.

Jaunaren Hitza egiazkoa da,
sua eta ezpata da;
haize gozoa, xuxurla, ezta eta usain gozoa da;
ekatxa eta euri nasaia da,
lilurutzen dauan musika da,
biziaren iturria.

- Jaungoikoaren Hitzak "bakea iragarten deutse,
bere herriari eta adiskideei".

Jaungoikoaren Hitzak bakea iragarten deutse
bere adiskide diran herri guztiei.

+ Hitza, bakea da,
adiskide guztiei oparitutakoa,
Jesukristo gure Jauna da.

Zure Hitza, Jauna, errukia eta salbamena da.

- Bialdu eiguzu zure Hitza:

batu gaizuz zure errukiaz eta salbatu gaizuz.

Jaunaren Hitza, "fededunengandik hurran dago",
eta gure salbamena izango da.

+ Jaunaren Hitzak "gure munduan izango dau bizilekua",
eta gure argia izango da.

Jaunaren Hitzak, gure bihotzean izango dau bizilekua
eta gure altxorra izango da.

- "Errukiak eta leialtasunak bat egiten dabe",
Jesukristo gure Jaunagan.

"Zuzentasunak eta bakeak bat egiten dabe",
Jesukristo gure Jaunagan.

+ Eskuzabaltasunak eta maitasunak bat egiten dabe,
Jesukristo gure Jaunagan.

Jesukristo; gure zuzentasuna, gure bakea,
gure bizia, gure bidea,
gure itxaropena eta salbamena.

- Zeruan entzuten dan hitza,
lurrean erneten dan hazia,
bere bizilekua gure artean hartu eban hitza.

+ Barra-barra isurtzen jaku Jaungoikoaren Hitza,
lurrean jaustean emonkorra dan Hitza,
"eta gure lurak bere frutua emongo dau",
Mariaren sabelean emon eban lez.

*Mobimentu biblikoa, XIX. gizaldiaren azke-
netik aurrera Bibliaren azterketa historiko-kriti-
koa bultzatu eban eta, holan, gai honetan
kontzilioaren aurrerapenak prestatu ebazan ko-
rronte zabala izan zan. Kristinau guztiek Idazteu-
nagaz hartu-emon zuzena izateko bideak jarteaz
be arduratu zan.*

*Argazkian, Jerusalengo Ecole Bibliqueko
ikertzaileak (1954).*

